

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

Behatokia		Observatorio
Nazioarteko ekonomiaren suspertze sintomak eragina izaten hasi dira Bizkaiko ekonomian.	+	Los síntomas de recuperación de la economía internacional comienzan a surtir efecto en la economía de Bizkaia.
Industriaren Konfiantza Adierazlea hazi egin da berriro ere.	+	El Indicador de Confianza de la Industria vuelve a mostrar una nueva mejoría.
Zazpi puntu jaitsi da eskabide-zorro txikiagoa izan duten enpresen portzentajea.	+	Se reduce en siete puntos el porcentaje de empresas que ven disminuir su cartera de pedidos.
Eraikuntzari dagokionez, hasita dauden babes ofizialeko etxebizitzak kopurua handitu da (%40,1).	+	En la Construcción aumentan las viviendas de protección oficial iniciadas (40,1%).
Urtearen lehenengo erdiko hilabeteetan jarduera maila historikoak erdietsi dira Bilboko portuan eta aireportuan.	+	Tanto el Puerto como el Aeropuerto de Bilbao presentan niveles de actividad históricos en la primera mitad del año.
Esportazioak, orain arteko dinamismoari jarraiki, %27,7 hazi dira aurreko urteko aldi beraren aldean eta 1.910 milioi eurora iritsi dira.	+	Continúa el dinamismo de las exportaciones, que crecen con relación al mismo periodo del año anterior un 27,7% hasta alcanzar un valor de 1.910 millones de euros.
2004ko lehen sei hilabeteetan 1.515 sozietate berri sortu dira Bizkaian, hau da, 165 sozietate berri gehiago dago aurreko urteko lehen seihilekoarekin konparatuz. Horietatik %7,3 industri sektorekoak dira.	+	En los seis primeros meses de 2004 se han creado en Bizkaia un total de 1.515 nuevas sociedades. Esta cifra supone un incremento de 165 nuevas sociedades sobre la cifra del mismo período del año pasado. Un 7,3% del conjunto de sociedades constituidas corresponde al sector industrial.
Bizkaiko langabezi tasa %8,8koa izan da, hau da, 2003an aldi horretan zegoena baino 0,3 puntu gutxiagokoa.	+	La tasa de paro de Bizkaia se sitúa en el 8,8%, lo que supone estar 0,3 puntos por debajo respecto al mismo período de 2003.
2004ko bigarren erdirako igurikapenak positiboak dira, hala ere, industri sektorearen indarberritzea faktore hauek baldintzatzen dute: lehengaien prezioen eboluzioak eta gure inguruko ekonomien hazkundeak.	=	Las Perspectivas para la segunda mitad de 2004 continúan siendo positivas. No obstante, la efectiva recuperación del sector industrial seguirá condicionada por la evolución de los precios de las materias primas, y por la consolidación del crecimiento de las economías de nuestro entorno.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Innovación
y Promoción Económica



**BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA**

**CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO**

Industria

2004. urtearen hasieran industriaren sektoreak igurikapen positiboak aurreikusi ditu hazkundeari dagokionez, eta badirudi igurikapen horiek egia bihurtu direla urtearen lehen erdiko hilabeteetan.

Industriaren Konfiantza Adierazleak jardura maila berriro hazi dela adierazten digu.


Produkzioa hobetu egin da 2004ko hirugarren bihilekoan, izan ere, inkestaturako enpresen %50ak dio produkzioa hazi egin dela (%38k 2003an). Enpresen igurikapenak positiboak dira, %84ak uste baitu bere produkzioa handitu edo behintzat egonkor mantenduko dela hurrengo hilabeteetan.

Industria

Las positivas perspectivas de crecimiento industrial que se podían apreciar en los primeros meses de 2004 parecen confirmarse en la evolución del sector durante la primera mitad del año.

El Indicador de Confianza de la Industria vuelve a mostrar una nueva mejoría en el crecimiento de la actividad.

La producción muestra una mejor situación en el tercer bimestre de 2004, aumentando en el 50% de las industrias encuestadas (38% en 2003). Las expectativas anuncian también una mejoría, ya que un 84% cree que su producción aumentará o se mantendrá estable en los próximos meses.



Enpresen %59k uste du guztizko eskabide-zorro egokia dutela beren produkzio gaitasuna ikusita, gainera, jaitsi egin da eskabide-zorro txikiagoa duten enpresen portzentajea: %35 2003ko hirugarren bihilekoan eta %28 2004an.

Enpresek beren produkzio gaitasunaren %85 erabili dute, hau da, 2004ko bigarren bihilekoan (%81) eta aurreko urtean (%83) baino gehiago.

2004ko bigarren erdirako igurikapenak positiboak dira. Ildo horretatik, enpresen %30ak aurreikusi du produkzioa gehiago handituko dela, eskabide-zorroa %19 haziko dela eta salmentak %28 igoko direla. Salmenta prezioek egonkor jarraituko omen dute, hala ere, lanaren eremuan aurreikuspenak ez dira hain onak eta, ildotik, inkestaturiko enpresaburuen %23k dio sektoreko langile okupatuen kopurua jaitsi egingo dela.

Un 59% de las empresas industriales opina que su cartera de pedidos total es adecuada a su capacidad productiva, disminuyendo además el porcentaje de empresas que han visto disminuir dicha cartera, un 35% en el tercer bimestre de 2003 por 28% en 2004.

La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 85%, un nivel superior tanto al 81% del segundo bimestre de 2004 como al 83% del año anterior.

Las perspectivas para la segunda mitad de 2004 continúan siendo positivas. De este modo, se anticipa un crecimiento más acentuado de la producción en el 30% de las empresas, con incremento en la cartera de pedidos y en las ventas en el 19% y 28% de las empresas, respectivamente. Las previsiones de precios de venta apuestan por la estabilidad, aunque las expectativas no son tan favorables en el ámbito laboral. Así, un 23% del colectivo empresarial encuestado anuncia una disminución del personal ocupado en el sector.

Eraikuntza

Urtearen lehenengo erdian Eraikuntzaren sektoreko adierazleek eboluzio heterogeneoa izan dute, beraz, baliteke hazkundera zertxobait mantsotzea eboluzio horren ondorioz.

2004ko urtarila-maiatzean lizitazio ofiziala esanguratsuki indartu da eta %143,5eko hazkunde tasa erregistratu du. Hazkunde honen arrazoia obra zibilaren eboluzio positiboan datza, 2003ko urtarila-maiatzeko kopuruak boskoiztu baititu; eraikuntza, aitzitik, ia heren batera murriztu da. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzari dagokionez, 2004ko lehen sei hilekoan, hazi egin da hasita dauden etxebizitzaren kopurua (%40,1).

Zementu kontsumoak, ordea, behera egin du eta 2004ko lehen bost hilabeteetan 222,2 tonakoa izan da, hau da, %-33,8 gutxitu da 2003ko aldi berarekin konparatuz.

Zerbitzuak

Zerbitzuen sektorea indarberritzen hasi dela esan daiteke, hala ere, joera desberdinak erregistratu dira bere azpisektoreetan. Bizkaiko txikizkako merkatarien konfiantza ahuldu egin da 2004ko maiatza-ekainean, baina aurreko urtean baino emaitza nabarmen hobekak lortu dira.

Construcción


A lo largo de la primera mitad del año el sector de la Construcción ha mantenido una evolución un tanto heterogénea en sus indicadores que podría implicar una cierta ralentización en su crecimiento.

La licitación oficial se incrementa de un modo notable en enero-mayo de 2004, con una tasa de crecimiento del 143,5%. El origen de este crecimiento es el buen comportamiento de la obra civil que multiplica por cinco sus cifras de enero-mayo de 2003, mientras que la edificación se reduce a casi una tercera parte. Por otro lado, en la construcción de viviendas de protección oficial, en el primer semestre del año, aumentaron las viviendas iniciadas en un 40,1%.

Sin embargo, las cifras de consumo de cemento no son tan favorables, porque en el conjunto de los cinco primeros meses de 2004 se alcanzaron los 222,2 millones de toneladas, lo que supone una disminución del -33,8% con respecto al mismo período de 2003.


Servicios

El sector Servicios comienza a mostrar síntomas de reactivación, aunque con distinta intensidad en los diferentes subsectores. La confianza del comercio minorista de Bizkaia se ha retraído en mayo-junio de 2004, pero continúa situándose claramente por encima de los resultados de un año antes.




Bizkaiko hotel-establezimenduek 335.016 bidaiari erregistratu dituzte 2004ko urtarila eta ekaina bitartean, hots, aurreko urteko urtarila eta ekaina bitartean baino 46.000 bidaiari gehiago, hortaz, sektorea %15,9 hazi dela esan dezakegu. Bestalde, 625.225 gau igarotze erregistratu dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %15,6 gehiago (84.530 gau igarotze gehiago). Batez besteko egonaldia eta okupazio maila ere hazi egin dira.

Los establecimientos hoteleros de Bizkaia registraron un total de 335.016 entradas de viajeros entre enero y junio de 2004, más de 46.000 entradas con relación al mismo período del año anterior, dicha cifra supone un incremento del 15,9%. Las pernoctaciones ascendieron a 625.225, lo que representa un aumento del 15,6% sobre las del mismo período del año anterior, es decir, 84.530 pernoctaciones más. Tanto la duración de la estancia media como el grado de ocupación también experimentaron una mejoría.




Azpiegiturak

2004ko lehen sei hilabeteetan Bilboko portuak jardura maila handia izaten jarraitu du eta %23,3 hazi da 2003ko aldi beraren aldean. Horrela beraz, hiruileko hau azken zortzi urteotako onena izan dela ikus dezakegu eta errekor historikoa lor liteke urtearen amaieran. Deskargatutako merkatugaiak %25,7 hazi dira eta kargatutakoak, berriz, %17,3.



Bilbo-Loiu aireportuko bidaiarien trafikoa %26,1koa izan da 2004ko lehen sei hilabeteetan, beraz, erraz gainditu da Estatuko aireportuen batez besteko hazkundea (%9). Horrela jarraituz gero, 3 milioi bidaiarien muga gaindi liteke aurrean.

El incremento en el tráfico de pasajeros en el Aeropuerto de Bilbao-Loiu en la primera mitad del año fue del 26,1%, superando claramente la media de crecimiento del conjunto de los aeropuertos del Estado (9%). De proseguir con esta evolución se podría superar este año la barrera de los tres millones de pasajeros.



Kanpo merkataritza


Bizkaiko kanpo merkataritzak dinamikoa izaten jarraitu du 2004ko lehen lau hilabeteetan, hala ere, ez da urte hasierako mailara iritsi. Esportazioen guztizko kopurua 1.910 milioi eurokoa izan da, beraz, %27,7 hazi da 2003ko aldi berarekin konparatuz. Bestalde, inportazioen guztizko kopurua 2.088 milioi eurokoa izan da eta %10,4 hazi da.

Hazkunde honen arrazoi nagusia "garraio materialaren" sektoreko esportazioan datza. Izan ere, 435 milioi euro esportatu ditu, 2003ko urtarileko 180 milioien aldean. Era berean, eboluzio positiboa du "mea produktuen" esportazioak (%46,9).

Comercio exterior


Durante los cuatro primeros meses de 2004 continua el dinamismo del Comercio Exterior de Bizkaia, si bien se sitúa en niveles inferiores a los de principios de año. Así, las exportaciones totales alcanzaron un valor de 1.910 millones de euros, con un aumento del 27,7% con respecto al mismo periodo de 2003. Por su parte las importaciones totales se situaban en 2.088 millones de euros con un aumento del 10,4%.

Este crecimiento tiene su principal origen en el sector de "material de transporte" que ha exportado por valor de 435 millones de euros cuando en el primer mes de 2003 vendió al exterior 180 millones. Igualmente evolucionan positivamente las exportaciones de "productos minerales" (46,9%).



Enpresa dinamismoa

2004ko lehenengo sei hilabeteetan 1.515 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Kapitalaren guztizko ekarpena 250 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko kapitala 165.292 eurora iritsi da batez beste. Horrek esan nahi du 165 sozietate berri gehiago dagoela 2003ko aldi berberarekin konparatuz.



Dinamismo empresarial

En los seis primeros meses de 2004 se han creado en Bizkaia un total de 1.515 nuevas sociedades con un capital aportado que asciende a 250 millones de euros, lo que significa un capital medio por empresa de 165.292 euros. Esta cifra supone un incremento de 165 nuevas sociedades con relación al mismo período del año 2003.

Enpresa sorreraren eboluzioa

* urtarrila-ekaina

Iturria:
Merkataritza Erregistroko Buletina.

Evolución de la creación de empresas

* enero-junio

Fuente:
Boletín del Registro Mercantil.

Zerbitzuen sektorearekin lotutako jarduerak lehen postuan daude, hau da: enpresa sortu berrien %75, kapital sozialaren %92 eta 136 sozietate gehiago. Lehenengo sei hilabeteetan eratutako 1.139 zerbitzu sozietate berrietatik, 416 ondasun higiezinaren gaineko jarduerari eta enpresentzako zerbitzuei dagokie, 363 Merkataritza sektorekoak eta Ibilgailuak konpontzeko sektorekoak dira, 135 Zerbitzu Publiko edo Pertsonalekoak dira, 88 Finantza Artekaritzan dabilta, 69 Ostalaritzakoak dira eta beste 68, berriz, Garraio eta Komunikazioetakoak.

Las actividades relacionadas con el sector Servicios ocupan el primer puesto con un 75% de las nuevas empresas creadas, un 92% del capital social y un crecimiento de 136 sociedades. De las 1.139 nuevas sociedades de Servicios constituidas en los seis primeros meses del año, 416 corresponden a Actividades Inmobiliarias y de Servicios a Empresas, 363 tienen su objeto social en el sector del Comercio y en las Reparaciones de Vehículos, 135 son de Servicios Públicos o Personales, 88 se dedican a la Intermediación Financiera, 69 centran su actividad en torno a la Hostelería, y 68 en el Transporte y las Comunicaciones.

Lan merkatua


Eustat-ek argitaratu duen Jardueraren arabera Biztanleria Inkestak dio 2004ko bigarren hiruhilekoan Bizkaiko enplegua hazi egin dela 2003ko bigarren hiruhilekoaren aldean eta, beraz, 6.500 enplegatu gehiago dagoela. Bestalde, 1.100 langabetu gutxiago dago. Hartara, urtearen lehen seihilekoaren amaieran 44.600 langabetu erregistratu dira guztira eta, hortaz, urtearen hasierako jaitsiera joerari eutsi zaiola ondoriozta dezakegu.

Esandakoari jarraiki, Bizkaiko langabezi tasa %8,8koa izan da bigarren hiruhilekoan, hau da, 2003ko bigarren hiruhilekoan erregistraturikoa baino 0,3 puntu gutxiagokoa, 2004ko lehenengo hilabeteetan erdietsitakoa baino 0,5 puntu gutxiagokoa eta, hala ere, EAEko langabezi tasa baino handiagoa (%8).

Mercado de trabajo

El empleo aumentó durante el segundo trimestre de 2004 y en comparación con el mismo período de 2003, en 6.500 personas según la Encuesta de Población en Relación con la Actividad elaborada por el Eustat. El paro disminuyó en 1.100 personas. Con estas cifras, el número de parados alcanza, al finalizar el primer semestre del año, un total de 44.600 personas, manteniendo la línea de descenso iniciada en la primera parte de 2004.

Como lógica consecuencia, la tasa de paro de Bizkaia se sitúa, en dicho período, en un 8,8%, 0,3 puntos por debajo de la correspondiente al mismo período de 2003, y 0,5 puntos por debajo de la de los primeros meses de 2004, aunque continúa estando por encima de la tasa de paro del conjunto de la CAV (8%).



Langabezi tasaren eboluzioa (%-tan)

Iturria: PRA. EUSTAT.

Evolución de la tasa de paro (en %)

Fuente: PRA. EUSTAT.

BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2003	2004	% 04/03
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Maiatza-ekaina	-9	-4	--
- Industri Produkzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Ekaina	106,8	113,7	3,7
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarrila-ekaina	2.315,6	2.377,0	2,6
- Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Maiatza-ekaina	83	85	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Maiatza-ekaina	-21	-14	--
- Zementu Kontsumoa (milaka tona.)	OFICEMEN	Urtarrila-maiatza	335.534	222.247	-33,8
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarrila-maiatza	233.686	569.162	143,5
- Hasitako etxebizitzak	VAS-GV	--	--	--	--
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarrila-ekaina	12.445	15.346	23,3
- Loiu Aireportuko bidaia-erabiltzaile Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarrila-ekaina	1.264,9	1.594,8	26,1
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarrila-ekaina	540,1	625,2	15,7
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Maiatza-ekaina	-23	-21	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	II. hiruhilekoa	-8	-8	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-ekaina	13.406	16.508	23,1
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-ekaina	2.864	3.195	11,5
- Bizkaiko KPI	INE	Ekaina	106,5	110,3	3,5
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	105,7	110,0	2,9
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	456,3	462,8	1,4
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	45,7	44,6	-2,4
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	II. hiruhilekoa	9,1	8,8	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Ekaina	40,3	39,9	
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Ekaina	442,2	453,2	2,5
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-apirila	1.495,3	1.906,6	27,7
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-apirila	1.892,3	2.088,2	10,4
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarrila-ekaina	1.350	1.515	12,2

- (1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza
* 2002 eta 2003

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2003	2004	04/03 %
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Mayo-junio	-9	-4	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Junio	106,8	113,7	3,7
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-junio	2.315,6	2.377,0	2,6
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Mayo-junio	83	85	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Mayo-junio	-21	-14	--
- Consumo de Cemento (miles Tm.)	OFICEMEN	Enero-mayo	335.534	222.247	-33,8
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-mayo	233.686	569.162	143,5
- Viviendas iniciadas	VAS-GV	--	--	--	--
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-junio	12.445	15.346	23,3
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-junio	1.264,9	1.594,8	26,1
- Pernotaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-junio	540,1	625,2	15,7
- Indicador de Confianza del Comercio	CCB	Mayo-junio	-23	-21	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de Confianza del Consumidor	FCVN	II trimestre	-8	-8	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-junio	13.406	16.508	23,1
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-junio	2.864	3.195	11,5
- IPC Bizkaia	INE	Junio	106,5	110,3	3,5
- Índice de Ventas del Comercio Minorista (3)	EUSTAT	II trimestre	105,7	110,0	2,9
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	II trimestre	456,3	462,8	1,4
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	II trimestre	45,7	44,6	-2,4
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	II trimestre	9,1	8,8	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Junio	40,3	39,9	
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Junio	442,2	453,2	2,5
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-abril	1.495,3	1.906,6	27,7
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-abril	1.892,3	2.088,2	10,4
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-junio	1.350	1.515	12,2

- (1) Incremento en relación al mismo periodo del año anterior
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento sobre la media del mismo periodo del año anterior
* 2002 y 2003.